



HEZKUNTZA SAILA

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Dirección de Aprendizaje e Innovación Educativa

EBAZPENA, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariarena; horren bidez, praktiketako prestakuntza-zentro aitortzen dira funts publikoz finantzatutako Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeak (ikastetxe publiko nahiz itunpeko pribatuak), heziketa berezikoak barne; hain zuzen ere, araubide orokorreko (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa) eta araubide bereziko ikasketen edo helduen hezkuntzako irakaskuntzan aritzen direnak.

2018ko martxoaren 6ko 33/2018 Dekretuak (martxoaren 23ko EHAA) praktiketako prestakuntza-zentroak onartzeko eta praktikak egingo dituzten ikasleen irakasle tutoreak egiaztatzeko betekizunak ezartzen ditu, honako unibertsitate-titulazio hauen practicumak garatzeko: Haur Hezkuntzako Gradua, Lehen Hezkuntzako Gradua eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako irakasle izateko gaitzen duen masterra, bai eta lanbide-heziketako irakaskuntzan aritzeko eskatzen den prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa lortzeko, titulazioa dela-eta masterreko ikasketak egin ezin dituzten pertsonentzako prestakuntza baliokidearen practicumari dagozkionak ere.

Martxoaren 6ko 33/2018 Dekretuan ezarritakoaren arabera, eta hezkuntza berriztatzeke lurralde-zerbitzuekin adostu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- I. eranskinean zerrendatutako ikastetxeak izendatzea praktiketako prestakuntza-zentro, goian aipatutako ikasketen practicumak garatzeko.

Bigarrena.- II. eranskinean zerrendatutako ikastetxeei ukatzea goian aipatutako ikasketen practicumak egiteko praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartuak izateko egindako eskaera.

RESOLUCIÓN de la Directora de Aprendizaje e Innovación Educativa, por la que se reconoce como centros de formación en prácticas a los centros docentes sostenidos con fondos públicos (centros públicos y privados concertados) de la Comunidad Autónoma del País Vasco, incluidos los de educación especial, que imparten enseñanzas de régimen general (Educación Infantil, Primaria, Secundaria Obligatoria, Bachillerato, Formación Profesional), y enseñanzas de régimen especial o de formación permanente de personas adultas.

El Decreto 33/2018, de 6 de marzo de 2018 (BOPV del 23 de marzo), establece los requisitos para el reconocimiento de los centros de formación en prácticas y la acreditación del profesorado tutor del alumnado en prácticas correspondientes al prácticum de las titulaciones universitarias de Grado en Educación Infantil, Grado en Educación Primaria y el Máster habilitante para el ejercicio de la docencia en Educación Secundaria Obligatoria y Bachillero, Formación Profesional y Enseñanza de idiomas, así como la formación equivalente para obtener la formación pedagógica y didáctica exigida para el ejercicio de la docencia en Formación Profesional, destinada a quienes no pueden acceder a los estudios de máster por razón de su titulación.

De conformidad con lo establecido en el Decreto 33/2018, de 6 de marzo, y previo acuerdo con los servicios territoriales de innovación educativa,

RESUELVO:

Primero.- Nombrar a los centros relacionados en el Anexo I como centros de formación en prácticas, para el desarrollo del prácticum de los estudios arriba mencionados.

Segundo.- Denegar a los centros relacionados en el Anexo II su solicitud para ser reconocidos como centros de formación en prácticas, para el desarrollo del prácticum de los estudios arriba mencionados.

Hirugarrena.- Hamar eguneko epea ezartzea ikastetxeek erreklamazioak aurkez ditzaten, ebazpen hau Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Tercero.- Establecer un plazo de diez días para que los centros presenten reclamaciones, a partir del día siguiente a la publicación de la presente resolución en la página web del Departamento de Educación.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den egunean

AMAIA AGIRRE PINEDO

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaria / Directora de Aprendizaje e Innovación Educativa

ERANSKINA I / ANEXO I
Onartutako eskabideen zerrenda / Relación de solicitudes aceptadas

LURRALDEA / TERRITORIO	UDALA / MUNICIPIO	KODEA / CÓDIGO	IKASTETXEA / CENTRO
GIPUZKOA	AZKOITIA	013635	CPEIP Bizilore HLHIP

ERANSKINA II / ANEXO II
 Ukatutako eskabideen zerrenda / Relación de solicitudes denegadas

LURRALDEA / TERRITORIO	UDALA / MUNICIPIO	KODEA / CÓDIGO	IKASTETXEA / CENTRO	ZERGATIA/MOTIVO
ARABA	VITORIA-GASTEIZ	010296	CIFP Construcción LHII	2
ARABA	VITORIA-GASTEIZ	010123	CEPA Paulo Freire HHI	2

2.- Ikastetxeak ez ditu aurkeztu 33/2018ko Dekretuak, martxoaren 6koa, practicumari buruzkoa, 4.2. artikuluan ageri diren dokumentuak./ El centro no presenta la documentación que señala el artículo 10.2 del Decreto 33/2018, de 6 de marzo, sobre el prácticum.